

Euskal gizarte ekonomiaren bilakaera krisi garaian

Jon MORANDEIRA ARCA

Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiko (OVES/GEEB) teknikaria
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Sarrera data: 2014/04/22

Onarpen data: 2014/09/08

Aurkibidea: 1. Sarrera. 2. Gizarte Ekonomiaren definizioa. 2.1. Jatorri historiko laburra. 2.2. Gizarte Ekonomia parte-hartzaileen ikuspuntutik. 2.3. Zedarritze zientifikoa. 2.4. Gizarte Ekonomiako 5/2011 Legea. 3. Euskal Gizarte Ekonomiaren datuak krisi garaian. 4. Azken gogoetak. 5. Bibliografia.

Laburpena:

Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren (OVES/GEEB) datuak eta txostenak baliatuz, Euskal Gizarte Ekonomiari krisi garaian izandako bilakera aztertu nahi da lan honetan. Lana Behatokiak aintzat hartzen duen Gizarte Ekonomiaren definizioa zehazten hasten da. Ondoren, Euskal Gizarte Ekonomiaren errealitatea islatzen duen azterketa deskriptiboa egiten da, hau da, bilakera aztertzeko erabili diren hiru faktoreen (enplegua, entitateak eta datu ekonomikoak) analisia burutzen da. Eta azkenik, ondorio modura, Gizarte Ekonomiaren eboluzioaren ildo nagusienak azpimarratzearekin batera, sektorearen bilakaeraren azterketa egin ahal izateko egun dauden zailtasunak aipatzen dira.

Hitz gakoak:

Gizarte Ekonomia, krisi ekonomikoa, bilakaera.

Resumen:

Valiéndonos de los datos e informes del OBSERVATORIO VASCO DE ECONOMÍA SOCIAL (OVES/GEEB), se quiere analizar la evolución de la Economía Social vasca en época de crisis. El trabajo comienza delimitando el concepto de Economía Social que asume el Observatorio, para posteriormente llevar a cabo un análisis descriptivo de la realidad de la Economía Social en base a los tres factores utilizados para ello (empleo, entidades y datos económicos). Por último, a modo de conclusión, se subrayan las principales tendencias de la evolución de la Economía Social, así como las principales dificultades para el análisis del sector.

Palabras clave:

Economía Social, crisis económica, evolución.

Abstract:

The main purpose of this paper is to analyze the evolution of Basque Social Economy in times of economic crisis, using the Basque Observatory of Social Economy's (OVES/GEEB) data and reports. The paper begins defining the concept of Social Economy that is assumed by the Observatory. After that, it carries out a descriptive analysis of the reality of the Social Economy based on three factors (employment, entities, and economic data). Finally, as a conclusion, the main trends in the evolution of the Social Economy and the main difficulties in the analysis are highlighted.

Keywords:

Social Economy, economic crisis, evolution.

ECONLIT:

P130, L310, M100, R100

1. Sarrera

Lan honen helburua Gizarte Ekonomiak krisi garaian izandako bilakera aztertzea izanik eta Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren (OVES/GEEB) datuak eta txostenak erabiltzen direnez, lehenik, Behatokiak zehazten duen Gizarte Ekonomiaren definizioa zein den aztertzen da. Bigarrenik, Gizarte Ekonomiaren bilakaera aztertzeko erabili diren enpleguaren, entitate kopururena eta datu ekonomikoen analisia burutzen da. Lana, ondorio modura Euskal Gizarte Ekonomiak krisi garaian izandako bilakaeraren joera nagusienak azpimarratzeaz gain, bilakaeraren analisia egiteko beharrezkoak diren datuak eskuratzeko dauden zailtasunak ere azaltzen amaitzen da.

2. Gizarte Ekonomiaren definizioa

Gizarte Ekonomiaren zedarritze kontzeptuala ikuspegi instituzionaletik zein ikuspegi teorikotik burutu da. Bi ikuspegi hauei erreparatuz, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiak (OVES/GEEB) bere gain hartutako definizioa zein den azaltzea da atal honen xedea.

2.1. *Jatorri historiko laburra*

Literatura ekonomiakoan Gizarte-Ekonomiaren kontzeptua, gaur egunean ezagutzen den moduan, XIX. mendeko hirugarren hamarkadan kokatu behar da. Mende honetan, politika ekonomiko alternatiboa bat izatetik, logika nagusitik at aurkitzen diren ekimen eta aktore konkretuen analisisan zentratzen den kontzeptua izatera igarotzen da (VIENNEY, 1994:70).

Johan Stuart Mill-en eta Leon Walras-en eskutik, Gizarte-Ekonomia, akribitate edo errealitate ekonomiko zen heinean, elkartegintza herrikoiarekin eta kooperatibagintzarekin lotzen zen XIX. mendean. Hortaz, elkarre herrikoiak eta kooperatibak bihurtu ziren Gizarte-Ekonomiaren ardatz nagusi. Bi hauen balore-sistema eta jarduera-printzipioak dira Gizarte-Ekonomiari buruzko kontzeptu modernoa definitu zutenak, hiru ardatz nagusien baitan: kooperatibak, mutualitateak eta elkarreak (CHAVES eta MONZÓN, 2008: 11). Jatorri historikoari helduz, hiru entitate hauek autolaguntzako erakundeen bidez egoera larrian eta babes gabeko taldeen erantzuna gauzatzeko gurtzatzen diren adierazpenak dira (MONZÓN, 2006: 12).

Beraz, XIX. mende amaieran finkatu ziren Gizarte-Ekonomiaren kontzeptua modernoaren ezaugarri nagusiak, elkartegintza demokratikoaren, mutualismoaren eta kooperatibismoaren baloreak oinarritzat hartuta.

Laburbilduz, kooperatibak, mutualitateak eta elkarreak izan dira Gizarte-Ekonomiaren ezaugarri bereizgarriak irudikatzen zituzten entitateak eta gerora tradizionalki Gizarte-Ekonomiaren muina izan direnak. Hala ere, sektorearen garapena eta herrialde bakoitzean dauden aukerak direla eta, era juridiko ezberdinak dituzten entitateak barneratu dira Gizarte Ekonomiaren inguruan.

2.2. *Gizarte Ekonomia parte-hartzaileen ikuspuntutik*

Ikuspegi instituzionaletik, hau da, Gizarte Ekonomian osatzen duten entitateen ikuspuntutik, hiru erakunde izan dira terminoa definitu dutenak: *Comité national de liaison des activités coopératives, mutuelles et associatives (CNLAMCA)*¹, el *Conseil Wallon de l'Économie Sociale* eta *Social Economy Europe*². Eta definizio hori, Gizarte Ekonomiaren defizio klasikotzat hartzen da gaur egun.

¹ CNLAMCA-a 1970ko Uztailaren 11n sortu zen eta gaur egun CEGES-en (Conseil des entreprises, employeurs et groupements de l'économie sociale) eraldatu dena (DAVANT, 2003).

² Lehen *Conferencia Europea Permanente de Cooperativa, Mutualidades, Asociaciones y Fundaciones (CEP-CMAF)*, 2008. urtetik Social Economy Europe izenez ezagutzen den aipatutako lau entitateen Europako ordezkaritza plataforma. Paltafomaren aburuz: «*las empresas de Economía Social son*

Social Economy Europe-k bultzatuta, 2002. urtean burutu zen zedarritze kontzeptualaren azken proposamena *Gizarte Ekonomiaren Printzipioen Karta*-ren bitartez. Bertan jasotzen ziren printzipioak ondorengo hauek dira (ETXEZARRETA, 2012: 71):

- Pertsonaren eta helburu sozialaren lehentasuna kapitalaren gainetik..
- Atxikipen borondatzekoa eta irekia.
- Bazkideen kontrol demokratikoa (fundazioen kasuan izan ezik, bazkiderik ez baitute).
- Bazkide-erabiltzaileen interesak eta interes orokorrak bateratzea.
- Elkartasun eta erantzukizun printzipioen defentsa eta ezarpena.
- Botere publikoekiko independentzia eta autonomia kudeaketan.
- Mozkinen gehiengoa garapen jasangarria, kideen zerbitzuen interesa eta interes orokorraren aldeko helburuetara bideratzea.

Aipatutako hiru erakunde ezberdin horien adierazpenek eta zedarritze kontzeptualek, Gizarte Ekonomiaren esparrua zehazterako garaian irizpide berdinak edo berak erabiltzen dituztela esan genezake. Hala ere, azpimarratu behar da *Social Economy Europe*-k egindakoak demokraziaren printzipioari gaineratzen dion ñabardura, fundazioak Gizarte Ekonomia osatzen duten entitateen artean barneratzen dituelako. (MONZÓN, 2006).

2.3. Zedarritze zientifikoa

Ikuspegi teoriko batetik, aldiz, Kontularitza Nazionalen Sistemak (SCN-1993 eta SEC-1995) oinarrian, CIRIEC-Internacional-ek egiten duen Gizarte Ekonomiaren zedarritzea da erreferentzi. CIRIEC-en proposamena, batetik, Gizarte Ekonomiaren definizio berriena eta berme instituzional handiena duena da, adostasun politiko zein zientifikoa altua baitu (MONZÓN, 2010a eta 2010b). Bestetik, Europako Gizarte eta Ekonomia Batzordeak bere gain hartzen duen zedarritzea, honen enkarguz 2008an CHAVES eta MONZÓN-ek bideratutako nazioarteko lan konparatiboaren ondorioz: *La Economía Social en la Unión Europea*. Lan honetan proposatutako Gizarte Ekonomiaren definizioa honako hau da (CHAVES eta MONZÓN, 2008: 20):

actores económicos y sociales presentes en todos los ámbitos de la sociedad, que se crean para satisfacer las necesidades de los ciudadanos. Ante todo se caracterizan por su finalidad: una manera diferente de hacer empresa que compagina en todo momento el interés general, la actividad económica y un funcionamiento democrático. La Economía Social abarca las cooperativas, las mutualidades, las asociaciones y las fundaciones así como nuevas formas de empresas que comparten los valores definidos por Social Economy Europe en su Carta de Principios. (<http://www.socialeconomy.eu.org/IMG/pdf/SocialEconomyEurope-ESP.pdf>).

«Conjunto de empresas privadas organizadas formalmente, con autonomía de decisión y libertad de adhesión, creadas para satisfacer las necesidades de sus socios a través del mercado, produciendo bienes y servicios, asegurando o financiando y en las que la eventual distribución entre los socios de beneficios o excedentes así como la toma de decisiones, no están ligados directamente con el capital o cotizaciones aportados por cada socio, correspondiendo un voto a cada uno de ellos. La Economía Social también agrupa a aquellas entidades privadas organizadas formalmente con autonomía de decisión y libertad de adhesión que producen servicios de no mercado a favor de las familias, cuyos excedentes, si los hubiera, no pueden ser apropiados por los agentes económicos que las crean, controlan o financian»³.

Definizio honetan Gizarte Ekonomiaren adieraren aldebikotasuna ezartzen da. Alde batetik, erakunde tradizionalak aurkitzen diren *merkatuko azpisektorea*, eta bestetik, irabazi asmorik gabeko entitateak (elkarte eta fundazio gehienak) osatzen duten *ez-merkatuko azpisektorea*.

Merkatuko azpisektorea: multzo honetan kokatzen dira merkatuko ekoizleak, hau da, merkatuan prezio ekonomiko esanguratsuetan salmentak egitea helburu duten entitateak. Alegia, ekoizpenaren salmentak gutxienez ekoizpen kostuen %50 denean. Azpisektorea osatzen duten entitateek, jarraian aipatzen diren baldintzak bete beharko dituzte (CHAVES eta MONZÓN, 2008):

- Kideen edo bazkideen beharrianak asetzeko sortuak dira, kasurik gehienetan bazkideak jardueraren erabiltzaileak dira aldi berean;
- Merkatuko ekoizleak dira, merkatuan beren produktuak prezio ekonomiko esanguratsuetan saltzen eta bertatik eskuratzen baitituzte entitateak beharrezkoak dituen baliabideen gehiengoa, eta
- Mozkinak bazkide-erabiltzaileen artean banatuak izan daitezke, baina ez bakoitzak entitatean egindako kapital ekarpenaren proportzioan baizik eta bakoitzak egindako lanaren arabera.

Azpisektore honen muina kooperatibek tea mutualitateek osatzen dute, baina baita horiekin antzekotasun handiak dituzten beste zenbait erakunde, besteak beste: gizarte-ekonomiako enpresa-taldeak, lan-sozietateak, laneratze enpresak eta enplegu zentru bereziak. Nahiz eta entitateen era ju-

³ Gizarte Ekonomiaren definizioa Europar Batzordeko Gizarte Ekonomiako enpresen Kontu Sateliteen Eskuliburua eta BAREA (1990 eta 1991), BAREA eta MONZÓN (1995) eta CHAVES eta MONZÓN (2000) jarraituz egindako da. Definizio honek bat egiten du Gizarte Ekonomiako agenteek ezarritako zedarritze irizpideekin eta literatura ekonomikoaren esparruan egin direnarekin, besteak beste: DESROCHE (1983), MONZÓN eta DEFOURNY (1992), DEFOURNY et al (2001), VIENNEY (1994) eta DEMOUSTIER (2001 y 2005).

ridikoa desberdina izan, bada irizpide guztien gainetik modu bereizgarri eta diskriminatzailean gailentzen dena: kudeaketa demokratiko, bai erabakitze organoetan («pertsona bat, bozka bat») zein mozkinen banaketan ere (PÉREZ DE MENDIGUREN et al, 2009).

Bestetik, *ez-merkatuko azpisektorea*: merkatukoak ez diren beste ekoizleez osatua dagoena da, hau da, bere ekoizpena dohainik edo prezio ekonomiko ez esanguratsuetan eskaintzen dituzten erakundeak. Zehatzago, ekoizpenaren salmentak ekoizpen kostuen %50 baino gutxiago denean. Ondorioz, Gizarte Ekonomiaren partaidetzat hartzen dira hainbat entitate pribatu, batik bat elkarte eta fundazioak, beren zerbitzuak hirugarren pertsoneri eskaintzen dizkietenak baina beti ere prezio ekonomiko ez esanguratsuetan, beren baliabideen gehiengoa merkatutik at lortuz: dohaintzak, bazkideen kuotak zein diru-laguntzak. Halaber, entitate hauek irabazi asmorik gabekoak diren neurrian, mozkinik lortzekotan, ezingo dituzte entitateko bazkideek bereganatu. Europako Kontabilitate Sistemak (aipaturiko SEC-1995) «*instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares (ISFLSH)*» eta Kontabilitate Nazionalen Sistemak (aipaturiko SCN-1993) «*instituciones sin fines de lucro (ISFL)*» izendatuak izaten dira. Azpisektorean, Gizarte-ekimeneko Hirugarren Sektorea osatzen duten erakunde guztiak barneratzen dira, nahiz eta egitura demokratikorik ez izan, interes orokorreko edo lehentasunezko ondasunak eskaintzen dituztelako (CHAVES eta MONZÓN, 2008 eta MONZÓN, 2010a eta 2010b).

Aurrekoari loturik eta «*Manual para la elaboración de cuentas satélite de las empresas de Economía Social: cooperativas y mutuas*» lana aintzat harturik, MONZÓN-ek (2010a y 2010b) Espainiako Gizarte Ekonomia osatzen duten entitateak zehazten ditu. Arestian aipatutako definizioa erabat onartzen da, baina merkatuko ekoizleen kasuan demokraziaren irizpidearen ezinbestekotasuna azpimarratuz. Entitate hauen onura soziala, beraien xedetik eta entitateen funtzionamenduaren ardatz diren balore demokratiko eta parte-hartzaileetik dator eta ez aurrera eramaten duten jarduera ekonomikotik. Halaber, ez-merkatuko zerbitzuen ekoizleak diren irabazi asmorik gabeko entitate boluntarioak ere barneratzen ditu, nahiz eta egitura demokratikoa ez izan, eta ondorioz, gizarte onura ukaezineko lehentasunezko ondasunak ekoizten dituzten entitateak aintzat hartuz bere baitan.

Asmorik gabeko entitateei dagokionez, «nahiz eta gehienek funtzionamendu demokratikoa izan, jarduera ekonomiakoa garatu eta Gizarte Ekonomiaren berezko ezaugarriak bete, bertan barneratua izateko aukera eztabaidatua izaten ari da» (itzulpena gurea) MONZÓN (2010a: 51 y 2010b: 55). Hala ere, gehiengo zabal batek onartzen ditu *gizarte-ekimeneko* jarduerak burutzen dituzten entitateak Gizarte Ekonomiakotzat. Azken hauek dira ez-merkatuko ekoizleen muina osatzen dutenak, alde batera utzirik, onura soziala ukaezina duten beste entitate talde zabal bat: elkarte, orde-

karitza, influentzia eta kontsumo kolektiboko zerbitzurako (besteak beste, ingurugiroa) elkarteak.

Euskadin, UPV/EHU-ko Gizarte Ekonomiako eta Zuzenbide Kooperati-boaren Institutuan jaino zen Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren (OVES/GEEB) eskutik, CIRIEC-ek egiten duen Gizarte Ekonomiaren definizioa bere gain hartzen du Euskadiko ezaugarrietara moldatuz (ikusit kuadro 1).

Kuadro 1
Euskal Gizarte Ekonomiaren entitateak

Gizarte Ekonomiako azpisektoreak	Sektore Instituzionala	Entitate mikroekonomikoa
Merkatuko azpisektorea	Sozietate ez finantzarioak	<ul style="list-style-type: none"> — Kooperatibak — Lan sozietateak — Laneratze enpresak — Enplegu zentru bereziak — Nekazaritzako eraldakuntza-baltzuak — Arrantzale kofradiak — Merkatuko beste ekoizle pribatuak (elkarteak, fundazioak eta sozietateak)
	Sozietate finantzarioak	<ul style="list-style-type: none"> — Kreditu kooperatibak — Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Era-kundeak — Gizarte Ekonomia entitateen Elkarre-kiko Berme Sozietateak
Ez-merkatuko azpisektorea	Etxeen zerbi- tzura dauden irabazi-asmorik gabe entitateak	<ul style="list-style-type: none"> — Gizarte-ekintzako elkarteak — Gizarte-ekintzako fundazioak — Etxeen zerbitzura dauden beste irabazi-asmorik gabeko erakunde batzuk

Iturria: Geuk egina. ETXEZARRETA eta MORANDEIRA (2012: 17) eta OVES/GEE.

Azpimarratzekoa da Gizarte Ekonomiaren baitan sortzen den Ekonomia Solidarioko korrontea. Justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako ekoizpen, banaketa, kontsumo eta finantzazio harremanak eratuz, Ekonomia Solidarioa harreman ekonomikoak berrezartzeko ahalegina da (PÉREZ DE MENDIGUREN et al, 2009). Ahalegin horretan, kontuan hartzekoa da alderdi ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturalak eta ingurumenekoak uztartzen dituen fenomeno konplexua dela Ekonomia Solidarioa, eta horregatik guztiagatik, «bizi-proiektu etikoa» osatzen du (DA ROS, 2007). Hortaz, Ekonomia So-

lidarioko esperientzia praktikoek, askok behintzat, Gizarte Ekonomiaren elementu diskurtsiboak, ohiko antolaerak eta forma instituzionalak hartzeaz gain (PÉREZ DE MENDIGUREN et al, 2009), prozesu ekonomikoaren esparru guztietan ageri dira (ASKUNZE, 2007 eta MARTÍNEZ eta ÁLVAREZ, 2008): ekoizpenean, non Gizarte Ekonomia klasikoarekin erlazio handiena duen esparrua; banaketan, bidezko merkataritzaren bidez kontsumo arduratsu eta iraukorrarekin (kontsumo etikoa, ekologiko eta solidarioa) loturak sortuaz; eta finantza esparruan finantza etiko eta alternatiboarekin⁴. Ondorioz, Ekonomia Solidarioa era instituzional edo antolaera ikuspuntutik (hurbilketa normatiboa) Gizarte Ekonomiaren parte da⁵. Aldiz, pentsaera eta hausnarketa ikuspuntutik, Ekonomia Solidarioak Gizarte Ekonomiako zenbait entitateen «merkatuko zein ez-merkatuko isomorfismoa»⁶-ren aurrean, aldaketa sozialean, ekonomiarako eredu alternatiboen eraketan, kapitalismoaren alternatibetan edo probrezia eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko moduetan kokatzen du debatea.

Ekonomia Solidarioak eraldaketa sozialerako aspektuak birjartzen ditu Gizarte Ekonomiaren baitan printzipio ekonomikoen aniztasuna aldarrikatuz eta POLANYI-ren (1944) hiru printzipioak (trukea merkataritza printzipioa, ez-merkataritzako birbanatze printzipioa eta elkarrekikotasun printzipio ez-monetarioa) barneratzen dituen ekonomia anitz baten alde eginaz.

2.4. *Gizarte Ekonomiako 5/2011 Legea*

Lehenengoz onartzen da Espainian Gizarte Ekonomia zehazten eta arautzen duen lege bat. 2011ko Martxoaren 29ko Gizarte Ekonomiaren Legea, Diputatuen Kongresuan sortutako Gizarte Ekonomiako azpibatzerdeak egindako lanen ondorio da. Lan eta Inmigrazio Ministeritzako Gizarte Ekonomiaren, Lan Autonomoaren eta Enpresaren Erantzukizun Sozialaren Zuzendaritzak, José Luís Monzón Campos (Presidente de CIRIEC-España Presidente eta Ekonomian Katedraduna) buru izan zen aditu talde bati legearen

⁴ Zentzu honetan, FIARE banku etikoko proiektuari egiten zaio erreferentzia. Finantza alternatiba bilakatu nahi duen proiektua eta Italiako Banco Popolare kreditu kooperatibarekin fusionatzeko fasean aurkitzen dena.

⁵ Euskadin, REAS Euskadi-ko (Ekonomia alternativo eta solidarioaren sarea) eta printzipioen kartaren sinatzaileen ia %100-ak, dagoeneko Gizarte Ekonomiakoak diren era juridiko edo instituzionalak hartu dituzte.

⁶ «Merkatuko isomorfismoa» kooperatibak behar sozialak erantzuteko jaio izatek merkatu beharrak asetzera igarotako prozesuari deritzo, helburu sozialetatik urrunduz eta enpresen lehia-kortasunera gerturatuz (DIMAGGIO y POWEL, 1983) eta «ez-merkatuko isomorfismoa» elkarrekin ongizate-erregimen ezberdinen menpe garatzen diren prozesuari deritzo (EVERS y LAVILLE, 2004).

aurreproiektua egitea eskatu zion. Abiapuntua hori izanik, beste zenbait proposamen eta zuzenketa gaineratuta jaio zen behin-betiko testua⁷.

2011ko Martxoaren 29ko Gizarte Ekonomiako Legea onartu izanak, aukera berri bat suposatzen du Gizarte Ekonomiaren kontzepturako Espainiako zein Euskadiko instantzia publikoetan⁸. Legearen helburua Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate guztientzako eremu juridiko komun bat ezartzea da. Gizarte Ekonomiako erakundetzat jotzen dira bere partaideen interes kolektiboak edo interes ekonomiko edo sozial orokorrak (edo biak) helburu izanik, ondorengo printzipio hauek betetzen dituztenak:

— *«Primacía de la persona y del fin social sobre el capital, que se concreta en gestión autónoma y transparente, democrática y participativa, que conlleva priorizar la toma de decisiones más en función de las personas y sus aportaciones de trabajo y servicios prestados a la entidad, que en relación a sus aportaciones al capital social;*

— *Aplicación de los resultados obtenidos de la actividad económica principalmente en función del trabajo aportado y servicio o actividad realizada por las socias y socios, en su caso, al fin social objeto de la entidad;*

— *Promoción de la solidaridad interna y con la sociedad que favorezca el compromiso con el desarrollo local, la igualdad de oportunidades, la cohesión social, la inserción de grupos excluidos, la generación de empleo estable y de calidad y la sostenibilidad; e*

— *Independencia respecto a los poderes públicos».*

Modu honetan, Legeak zehazten ditu zeintzuk diren Gizarte Ekonomia osatzen duten entitateak:

- Kooperatibak
- Mutualitateak
- Jarduera ekonomiakoa duten elkarte eta fundazioak
- La sozietateak
- Laneratze enpresak
- Enplegu zentru bereziak
- Arrantzaleen kofradiak
- Nekazaritzako eraldaketa-baltzuak
- Erakunde singularrak⁹

⁷ Ikusi MONZÓN eta al (2009): *Informe para la elaboración de una Ley de Fomento de la Economía Social*, CIRIEC-España, Valentzia.

⁸ Espainiako Konstituzioko 149.1.13. artikulua babespian oinarritzko araudi bezala ezartzen delako (Gizarte Ekonomiaren 5/2011 Legearen lehen azken zedapena).

⁹ ONCE (*Organización Nacional de Ciegos Españoles*) erakundea da legearen hirugarren xedapen gehigarriak espresuki Gizarte Ekonomiakotzat jotzen duen entitate singularra.

Hala ere, Gizarte Ekonomiako entitate izan daitezke Legean ezarritakoa betetzen dutenak eta Gizarte Ekonomiako entitateen katalogoan gehitzen diren horiek. Katalogo hori, Lan eta Inmigrazio Ministeritzak egingo du Gizarte Ekonomiaren Sustapen Kontseiluaren aurretiko txostenaz baliatuz.

Baina, ez da Lege honen helburu sektorearen lege arautzailea izatea entitate bakoitzak bere estatu juridikoa propioa baitu, baizik eta kategoria arautzea berau definitzeko, identifikatzeko eta kuantifikatzeko (FAJARDO, 2009: 32).

Zentzu honetan, esan genezake nolabaiteko adostasuna egon badagoela Legearen ondorioen inguruan. Alegia, bere ekarpena garrantzitsuena amankomuneko kontzeptu baten definizioa egitea eta berau osatzen duten elementuen erreferentzia zehatza izatea da. Horrela, Gizarte Ekonomia dagoneko ez da kontzeptu juridiko zehaztugabea eta segurtasun juridiko ezari amaiera ematen zaio.

3. Euskal Gizarte Ekonomiaren datuak krisi garaian

Euskal Gizarte Ekonomiaren datuen analisia egiteko, UPV/EHuko GEZKI Institutuko Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiak (OVES/GEEB) urtero argitaratzen dituen euskal Gizarte Ekonomiaren egoera txostenak baliatuko dira.

Txosten horiek aztertuz, bereziki argitaratutako azkenari erreparatuz, krisi garaian, 2008-2012 urte bitartean alegia, Euskal Gizarte Ekonomiak enpleguan, entitate kopuruan eta datu ekonomikoetan izandako bilakaeraren ondorio nagusiak aipatuko ditugu.


Lehenik, enpleguari dagokionez, agerian geratzen da Gizarte Ekonomiak enplegua sortzeko duen gaitasunak beherakada izan duela. Hau da, nahiz eta Gizarte Ekonomiako hainbat entitateek, hots, enplegu zentru bereziek eta laneratze enpresek enplegua sortzerik lortu duten aztertutako epealdiko urte gehienetan, Gizarte Ekonomian orotara enplegua murriztu egin da (ikus Grafiko 1 eta Taula 1).

Grafikoa 1-ean entitate familia bakoitzak urte horretan, aurreko urtearekin alderatuak, izan duen enplegua aldaketa adierazten du. Hori horrela, ikus daiteke Gizarte Ekonomiaren lau entitate familia esaguratsuenak, hots, kooperatibak, lan sozietateak, enplegu zentru bereziak eta laneratze enpresak, 2012. urtean izandako aldaketa negatiboak kontuan izan dituztela eta, hortaz, bereziki adi egon beharko da 2013 urtean izango diren datuetara ea egoera mantentzen den edo ez jakiteko.

Taula 1
Gizarte Ekonomiaren eta EAEn enpleguaren bilakaera

Emplegua	2008	2009	2010	2011	2012
Kooperatibak	57.512	55.121	56.231	57.122	56.365
Lan sozietateak	12.565	11.444	9.177	7.945	7.275
Enplegu zentru bereziak	6.778	6.395	6.646	6.858	6.786
Laneratze enpresak	539	674	783	752	637
Elkarrekiko berme sozietateak	13	19	19	19	20
Guztira	77.407	73.653	72.856	72.696	71.083
Aldakuntza		% -4,85	% -1,08	% -0,22	% -2,22
EAE	942.479	952.510	906.044	890.093	873.121
Aldakuntza		%1,06	% -4,88	% -1,76	% -1,91
Parte-hartzea	%8,21	%7,73	%8,04	%8,17	%8,14

Iturria: Geuk egina. OVES/GEEB.



Iturria: Geuk egina. OVES/GEEB.

Grafikoa 1
Enpleguaren bilakaera


Azpimarratzekoa da enpleguaren murrizketa hori esanguratsuagoa izan dela kooperatibetan zein lan sozietateetan. Datu txar hauek entitate hauen iaera industrialaren eragina da (ikus OVES/GEEB-ko 2013-ko txostena),

jakina denez egungo krisia batik bat sektore hau bortizki jo du eta. Hala ere, datu positibo moduan, enpleguaren bazkide kopuruaren portzentaia mantendu egiten da eta, aldiz, enplegu prekarioak (aldibaterako soldata-pekoak) murriztu egiten du bere parte-hartzea. Azkeneko kasuan, krisiaren ondorio naturala dela esan genezake, krisiaren lehen eragina mota honetako enpleguan izaten baita.

Edozein kasutan, EAE-ko enpleguaren egoera globala kontuan hartzen badugu, Gizarte Ekonomiaren erresistentzia zantzuak antzeman daitezke. Nahiz eta 2008 eta 2009. urteetan EAE-ko enplegua orotara positiboa izan, ondorenean jasandako balore negatiboak Gizarte Ekonomiak izandakoak baino larriagoak izan dira. Ondorioz, Gizarte Ekonomiak EAE-ko enpleguan duen parte-hartzea handitu egin da 2010 eta 2011 urteetarako, 2012.-ean egonkortzen delarik.

Era berean, Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate guztien (Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundeak izan ezik) enplegu datuak lortzen diren urtea hartzen badugu, 2010. urtea alegia, Gizarte Ekonomiak EAeko enpleguaren %9,44-koa da eta balio absolututan orotara 85.511 pertsona (ikus OVES/GEEB-ko 2013-ko txostena).

Bigarrenik, entitate kopuruari dagokionez tendentzia berdina antzematzen da. Hau da, aztertutako epealdian orokorrean Gizarte Ekonomiako entitateen kopurua gutxitu egiten da, nahiz eta zenbait entitate, laneratze enpresak eta enplegu zentru bereziak, emaitza onak izan (ikus Grafikoa 2). Hala ere, kooperatibek eta lan sozietateek neurri apalagoan, entitateak sortzeko joera positiboa erakusten dute (ikus OVES/GEEB-ko 2013-ko txostena).



Iturria: Geuk egina. OVES/GEEB.

Grafikoa 2
Entitateen bilakaera

Aipatzekoa da aztertutako epealdiko urte gehienetan, Gizarte Ekonomiak enpleguan jasandako aldakuntza negatiboak entitate kopuruan izandakoak baino txikiagoak izan direla. Ondorioz, Gizarte Ekonomiak hazkunde garaietan enplegua sortzeko ahalmena haundia izanik, atzeraldi garaietan Gizarte Ekonomiak erresistentzia eta enplegua mantentzeko ahalmena duela agerian uzten du.

Bestetik, enpleguaren kasuan bezala, 2010ko Gizarte Ekonomia osoaren datuei erreparatzen badiegu, Gizarte Ekonomiak EAEko entitate kopuruaren %13,68-a da eta balio absolututan orotara 22.876 enplegu. Eta are gehiago, aipatutako portzentai hori haunditu egiten da 2011. eta 2012. urteetan %15-eraino nahiz eta urte horietako datuetan arrantzaleen kofradia eta nekazaritzako eraldaketa-baltzuak aintzat hartu ez (ikus OVES/GEEB-ko 2013-ko txostena).

Azkenik, datu ekonomikoei erreparatuko diogu. Kasu honetan, Gizarte Ekonomiaren balorazio orokor bat egitea zaila suertatzen da, ez baitaude datu homogeneorik ez entitate guztientzako ezta urte guztietarako.

Hortaz, egiten den analisia sektorekakoa edo entitatekakoa izan behar da. Hori horrela izanda, aipa genezake laneratze enpresek eta enplegu zentru bereziek izandako bilakera postiboa 2012. urterarte, sortutako balio erantsi gordinen.

Taula 2
Gizarte Ekonomiaren eta EAEn entitateen bilakera

Entitateak	2008	2009	2010	2011	2012
Kooperatibak	1.511	1.478	1.498	1.522	1.533
Lan sozietateak	931	864	815	762	709
Enplegu zentru bereziak	6	6	6	8	9
Laneratze enpresak	42	41	41	44	45
Elkarrekiko berme sozietateak	1	1	1	1	1
Borondatzeko gizarte aurreikuspen erakundeak	90	87	88	87	91
Guztira	2.581	2.477	2.449	2.424	2.388
Aldakuntza		% -4,03	% -1,13	% -1,02	% -1,49
EAE	179.953	178.062	167.270	161.658	161.626
Aldakuntza		% -1,05	% -6,06	% -3,36	% -0,02
Parte-hartzea	%1,43	%1,39	%1,46	%1,50	%1,48

Iturria: Geuk egina. OVES/GEEB.

Azkenik, Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate mota guztien datuak eskuratu ahal izan diren urteari kasu eginez gero, hau da, 2010. urteari, Gizarte Ekonomiak 3.673.509.170 euroko balio erantsi gordina sortzeko ahalmena izan du. Zenbateko honek, EAE-ak sortzen duen balio erantsi gordinaren %6,22 suposatzen du.

Taula 3

Gizarte Ekonomiaren eta EAEn Balio Erantsi Gordinaren bilakaera

Balio Erantsi Gordina	2008	2009	2010	2011	2012
Kooperatibak eta Lan Sozietateak	2.927.740,00	e.e.	2.823.560,00	e.e.	e.e.
Enplegu zentru bereziak	106.771,73	104.568,75	121.992,97	133.436,03	130.491,15
Laneratze enpresak	e.e.	14.171,17	14.433,34	18.390,50	17.936,36
Elkarrekiko berme sozietateak	1.054,00	1.612,00	819,00	876,00	378,00
Guztira	3.035.565,73	120.360,92	2.960.805,31	152.702,53	148.805,51
EAE	61.260.083,00	58.292.757,00	59.050.704,00	59.821.639,00	58.993.430,00
Parte-hartzea	%4,96	%0,21	%6,22	%0,26	%0,25

e.e.: Ez eskuragarri.

Iturria: Geuk egina. OVES/GEEB.

4. Azken gogoetak

Aurreko atalean aipatutako datuetatik Gizarte Ekonomiako krisialdi garaiko bilakaeraren joera nagusienak ondorengo hauek direla ondoriozta genezake:

1. Enpleguaren mantenua Gizarte Ekonomiaren ezaugarri nagusiene-tako izaten jarraitzen du, bere parte-hartzea Euskadiko enpleguan %8 inguruan ezarriz.
2. Nahiz eta entitate kopurua behera egin, entitateak sortzeko joera positiboa sumatzen da Gizarte Ekonomiako entitateetan.
3. Giarte Ekonomiak datu ekonomiko positiboak ditu, sortutako balio erantsi gordina positiboa mantenduz.

Hala ere, kontuan hartu behar da bilakaeraren joerak zehazteko garaian, beharrezkoak diren datuak lortu eta aztertu ahal izateko egun dauzen zailtasunak. Informazio iturrien aniztasunak eta erabiltzen diren aldagai eta epealdi ezberdinek zaildu egiten dute Gizarte Ekonomiaaren datu homogeneokin analisi zorrotz bat burutzea.

Gizarte Ekonomia entitateen datuak lortzeko zailtasun nagusienak jarraian azaltzen dira (ikus OVES/GEEB-ko 2013-ko txostena):

1. Gizarte Ekonomia osatzen duten entitate guztien estatistiken aldizkako argitalpen eza.
2. Gizarte Ekonomiaiko zenbait entitateen datu ofizialen eskurazintasuna.
3. Erregistro ofizialetako datuen egoera dela eta sortutako zailtasunak, hau da, datu baseen formatua.

Hala ere, erreferentziako datu zehatzetan oinarritutako Gizarte Ekonomiaaren errealitatearen oso gertuko irudi fidela lortzen da. Bestalde, agerian geratzen da, estatistika zehatzen eta fidagarrien bitartez eskuratu daitezkeen Gizarte Ekonomiaaren bisualizazio oztopatzen duen informazio sozioekonomikoak lortzeko zailtasunak egon badaudela. Hortaz, aurkeztu diren datuak eta informazioak esanguratsuak eta fidagarriak diren arren, osatugabeak ere badira.

Zentzu honetan, aipatua izan den Gizarte Ekonomiaiko Legeak berak Gizarte Ekonomiaaren estatistikei dagokionez, Gizarte Ekonomiaiko entitateen eta berauen ordezkariak erakundeen informazio estatistikoa lantzea ahalbideratuko duen sistema eraginkorra ezartzeko beharrezkoak diren neurri konkretuak hartu beharko direla dio¹⁰.

5. Bibliografia

- ASKUNZE, C. (2007): «Economía Solidaria», Celorio, G. eta Lopez de Muniain, A. (koord.): Diccionario de Educación para el desarrollo, Hegoa, Bilbao, 107-113.
- BAREA, J. (1990): «Conceptos y agentes de la Economía Social», CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa, 8. zbk, 109-117.
- BAREA, J. (1991): «La Economía Social en España», Revista de Economía y Sociología del Trabajo, 12. zbk, 8-16.
- BAREA, J. eta MONZÓN, J.L. (1995): *Las Cuentas Satélite de la Economía Social en España: una primera aproximación*, CIRIEC, Valencia.

¹⁰ Pérez De Uralde, J.M. (2011): Informe sobre las repercusiones de la Ley 5/2011, de 29 de marzo, de Economía Social en la Comunidad Autónoma de Euskadi, GEZKI, Donostia-San Sebastián.

- BAREA, J. eta MONZÓN, J.L. (1999): «Tercer sector e instituciones sin fines de lucro en la contabilidad nacional», BAREA, M. eta Vittdanini, G. (zuz.): *La economía del non profit. Libre expresión de la sociedad civil*, Encuentro Ediciones, Madrid, 149-176.
- CHAVES, R. eta MONZÓN, J.L. (2000): «Las cooperativas en las modernas economías de mercado», *Economistas*, 83. zbk, 113-123.
- CHAVES, R. eta MONZÓN, J.L. (2008): *La Economía Social en la Unión Europea*, Comité Económico y Social Europeo, Bruselas.
- CONSEIL WALLON DE L'ÉCONOMIE SOCIALE (1990): *Rapport à l'Exécutif Régional Wallon sur le secteur de l'Économie Sociale*, Liège.
- CORAGGIO, J.L. (2004): «Una alternativa socioeconómica necesaria: la economía social, Danani (koord.): *Política social y Economía Social. Debates fundamentales*, Altamira, Buenos Aires.
- CORAGGIO, J.L. (2011): *Economía Social y Solidaria. El trabajo antes que el capital*, Abya-Yala, Quito.
- DA ROS, G.S. (2007): «Economía Solidaria: aspectos teóricos y experiencias», *Unircoop*, 5-1. zbk, 9-27.
- DAVANT, J.P. (2003): «Las organizaciones intersectoriales de la Economía Social: Francia, CEGES», *Zenbait Egile.: La Economía Social y el Tercer Sector*, Escuela Libre, Madrid.
- DEFOURNY, J.; DEVELTERE, P. eta FONTENEAU, B. (2001): *La Economía Social en el Norte y en el Sur*, Corregidor, Buenos Aires.
- DEMOUSTIER, D. (2001): *L'économie sociale et solidaire. S'associer pour entreprendre autrement*, Syros, Paris.
- DEMOUSTIER, D. (2005): *Économie sociale et developpement local*, L'Harmattan, Paris.
- DESROCHE, H. (1983): *Pour un taité d'économie sociale*, CIEM, Paris.
- DIMAGGIO, P. eta POWEL, W. (1983): «The Iron Cage Revisited: Institutional Isomorphism and Colletive Rationality in Organizational Fields», *American Sociological Review*, 48. zbk, 147-160.
- EVERS, A. eta LAVILLE, J.L. (2004): «Definign the Third Sector in europe», EVERS, A. eta LAVILLE, J.L. (ed.): *The Third Sectro in Europe*, Cheltenham: Edward Elgar publishing, 11-42.
- ETXEZARRETA ETXARRI, Enekoitz. *Gizarte ekonomiaren aukera zaintzen krisiaren aurrean: Gipuzkoako persona nagusien alorra aztergai*, Baleren Bakaikoak eta Mikel Zurbanok zuzendua. Doktorego-Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Economía eta Enpresa Zientzien Fakultatea, 2012.
- ETXEZARRETA, E. eta MORANDEIRA, J. (2012): «Consideraciones conceptuales sobre la Economía Social a la luz de la Ley 5/2011», *Revista Vasca de Economía Social=Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria*, 8. zbk., 7-36.
- FAJARDO, G. (2009): «La Economía Social en las leyes», CIRIEC-España, *Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 66. zbk, 5-35.
- GUERRA, P. (2004): «Economía de la Solidaridad. Una introducción a sus diversas manifestaciones teóricas», www.trueque-marysierre.org.ar/biblioteca2.htm

- LÓPEZ CASTELLANO, F. (2003): «Una sociedad “de cambio y no beneficencia”. El asociacionismo en la España liberal (1808-1936)», CIRIEC-España, *Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 44. zbk, 199-228.
- MARTÍNEZ, A. eta ÁLVAREZ, S. (2008): «La economía crítica y solidaria: perspectivas teóricas y experiencias para la construcción de una economía alternativa», Worldwatch Institute: La situación del mundo 2008. Innovaciones para una economía sostenible. Informe anual del Worldwatch Institute sobre el Progreso hace una Sociedad Sostenible, Icara, Barcelona.
- MONZÓN, J.L. (2006): «Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector», CIRIEC-España, *Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 56. zbk, 9-24.
- MONZÓN, J.L. (zuz.) (2010a): Las grandes cifras de la Economía Social en España. Ámbito, entidades y cifras clave. Año 2008, CIRIEC, Valencia.
- MONZÓN, J.L. (zuz.) (2010b): La Economía Social en España en el año 2008. Ámbito, magnitudes, actividades y tendencias, CIRIEC, Valencia.
- MONZÓN, J.L. (2010c): «Entidades no lucrativas y el Tercer Sector de Acción Social», MONZÓN, J.L. (zuz.): La Economía Social en España en el año 2008. Ámbito, magnitudes, actividades y tendencias, CIRIEC, Valencia, 556-563.
- MONZÓN J.L. (2013): «Empresas sociales y economía social: perímetro y propuestas metodológicas para la medición de su impacto socioeconómico en la U.E.», *Revista de Economía Mundial*, 35. zbk., 21-45.
- MONZÓN, J.L.; CALVO, R.; CHAVES, R.; FAJARDO, I.G. eta VALDÉS, F. (2009): Informe para la Elaboración de una Ley de Fomento de la Economía Social, CIRIEC, Valencia.
- MONZÓN, J.L. eta DEFOURNY, J. (zuz.) (1992): Economía Social. Entre Economía Capitalista y Economía Pública, CIRIEC, Valencia.
- OBSERVATORIO VASCO DE ECONOMÍA SOCIAL (2014): Informe de Situación de la Economía Social Vasca 2012, Observatorio Vasco de Economía Social=Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokia, Donostia-San Sebastián.
- PÉREZ DE MENDIGUREN, J. C.; ETXEZARRETA, E. eta GURIDI, L. (2009): «Ekonomia Soziala, enpresa soziala eta ekonomia solidarioa: kontzeptu ezberdinak eta eztabaida berbera», *Ekonomia Solidarioaren Paperak*, Reas-Euskadi, Bilbao.
- PÉREZ DE URALDE, J.M. (2011): Informe sobre repercusiones de la Ley 5/2011, de 29 de marzo, de Economía Social en la Comunidad Autónoma de Euskadi, GEZKI, Donostia-San Sebastián.
- POLANYI, K. (1944): *The Great Transformation*, Rinehart & Company, New York.
- VIENNEY, C. (1994): *L'économie sociale*, La Découverte, Paris.